



**FILMAZPIT**

“EMAKUMEA FILM LABURREAN” BILDUMA

Filmazpit programak, Clermont-Ferrandeko Nazioarteko Film Laburren Zinemaldia eta Donostiako Giza Eskubideen Zinemaldiarekin elkarlanean, emakumeari eragiten dioten problema anitzez diharduen film labur bilduma bat aurkeztu du.

Ali, Fatine, Helen, Irene eta Rae; Belgika, Brasil, AEB, Frantzia eta Erresuma Batutik etorritako bost lan hauen protagonista dira. Gaien artean, problematika konplexuak: tratu txarrak, marjinalitatea, presio soziokulturala, desberdintasuna, garapen sexualaren eragozpenak, behartutako prostituzioa... indarkeria mota ezberdinak, azken finean, emakumearen aurrerapenari trabak jartzen dizkietenak XXI. mendean ere.

Hainbat eta hainbat Zinemaldietan proiektatutako eta saritutako bost film labur Filmazpitek jaso eta lehen aipatu auzi horietan guztietan sakondu nahi duen ororen eskuetan jarri nahi dituenak.

---

*Filmazpit, en colaboración con el Festival Internacional de Cortometraje de Clermont Ferrand y el Festival de Cine y Derechos Humanos de San Sebastián, presenta una recopilación de cortometrajes dedicados a explorar algunos de los muchos problemas que afectan a la mujer.*

*Ali, Fatine, Helen, Irene y Rae son las protagonistas de estos cinco trabajos provenientes de Bélgica, Brasil, Estados Unidos, Francia y Reino Unido que abordan problemáticas complejas como el maltrato, la marginalidad, la presión socio-cultural, la desigualdad, el impedimento del desarrollo sexual, la prostitución forzada... diferentes modos de violencia, en definitiva, que siguen dificultando el progreso de la mujer en el siglo XXI.*

*Cinco cortometrajes exhibidos y premiados en multitud de Festivales de todo el mundo que Filmazpit ha seleccionado y quiere poner en disposición de todos aquellos interesados en profundizar en cuestiones como las anteriormente mencionadas.*

## THE CURSE. Fyzal Boulifa



Fatine bere mutil-lagunarekin elkartu da herritik urrun. Ez daki ume bat begira ari dela. Fatinek etxera itzuli nahi du lehen bait lehen, gazteak, berriz, egoeraz probetxu atera...

*Fatine se ha alejado de su pueblo para encontrarse con su novio. Ella no sabe que un niño les está mirando. Fatine quiere regresar a casa cuanto antes; el niño, a su vez, aprovecharse de la situación...*

ERRESUMA BATUA / REINO UNIDO. 2012  
JATORRIZKO HIZKUNTZA / IDIOMA ORIGINAL: ARABIERA / ÁRABE  
IRAUPENA / DURACIÓN : 17 MIN

## IRENE. Patricia Galucci / Victor Nascimento



Irene landa eremuan bizi da. Bere ilobak espero ez duen bisitaldi bat egiten dionean, emakumearen bakardadea eta eguneroko bizitza aztoratu egiten da. Ahazturik zituen sentimenduak berriz ere loratzen dira.

*Irene vive sola en el campo. La inesperada visita de su nieta y una amiga altera la soledad y la vida de la mujer. Sentimientos que ella creía olvidados vuelven a florecer.*

BRASIL. 2011  
JATORRIZKO HIZKUNTZA / IDIOMA ORIGINAL: PORTUGES / PORTUGUÉS  
IRAUPENA / DURACIÓN : 14 MIN

## MOBILE HOMES. Vladimir de Fontenay

Prostituzio sare batean harrapaturik da Ali. Egunak joan eta egunak etorri bizirauten saiatzen da hiri batetik bestera eramaten duten bitartean. Haren semea Alex ihes egiteko modua aurkitu nahi du.

*Ali está atrapada en una red de prostitución. Trasladada constantemente de una ciudad a otra intenta sobrevivir al día a día mientras su hijo Alex busca un modo de huir con la esperanza de dejar atrás esa vida.*

AEB, FRANTZIA / ESTADOS UNIDOS, FRANCIA. 2013  
JATORRIZKO HIZKUNTZA / IDIOMA ORIGINAL: INGELESA / INGLÉS  
IRAUPENA / DURACIÓN : 13 MIN

## RAE. Emmanuelle Nicot

Aterpearen helbidea sekretua izan behar da bera eta gainerako emakumeen segurtasunagatik. Telefonoak dar-dar egiten du poltsikoan. Rae ikaraturik da. Itzaltzeko eskatzen diote. Hori egin behar du.

*La dirección del refugio debe quedar en secreto por ella y por las demás mujeres. El teléfono vibra en su bolsillo. Rae se estremece. Le dicen que lo apague. No hay duda de que debe hacerlo.*

FRANTZIA / FRANCIA. 2012  
JATORRIZKO HIZKUNTZA / IDIOMA ORIGINAL: FRANTSESA / FRANCÉS  
IRAUPENA / DURACIÓN : 19 MIN

## WHAT TO BRING TO AMERICA. Christophe Nassif

Helen, Los Angelesen bizi den emakume etiopiarra, presio handia jasaten ari da bere familia eta tradizioagatik, alabaren ablazioaren momentua iristear dagoenean. Erabaki bat edo bestea hartu behar du.

*Helen, una inmigrante etíope que vive en Los Ángeles, es presionada por su familia y por la tradición para tomar una decisión ahora que se acerca el momento de la ablación de su hija.*

AEB / ESTADOS UNIDOS. 2010  
JATORRIZKO HIZKUNTZA / IDIOMA ORIGINAL: INGELESA, AMHARERA / INGLÉS, AMARICO  
IRAUPENA / DURACIÓN : 14 MIN

Kudeatzaileak:



Laguntzaileak:

